



2016ko URRIA **EUSKO BAROMETROA**

Euskal iritzi publikoari
buruzko aldizkako azterketa



2016ko URRIA **EUSKO** **BAROMETROA**

Euskal iritzi publikoari buruzko
aldizkako azterketa



Fundación

IBERDROLA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



DEPARTAMENTO DE
CIENCIA POLÍTICA
Y DE LA ADMINISTRACION
POLITIKA ETA
ADMINISTRAZIO ZIENTZIEN BAZA

AURKEZPENA

EUSKOBAROMETROA (www.ehu.es/euskobarometro) **Francisco José Llera Ramo** irakasleak zuzendutako UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia saileko ikertaldearen izena da. Taldeak gune egonkor bat du, irakasle eta ikertzaile hauek osatutakoa: Arantxa Elizondo, Jonatan García, Patxi Juaristi, Rafael Leonisio, José M, Mata, Juantxo Mokoroa, Carmelo Moreno, Ainhoa Novo, Alberto de la Peña, Sergio Pérez eta Alfredo Retortillo. Era berean, prestakuntza jaso edo taldekide izan dira Eider Alkorta, Juan Luis Arriaga, Yosune Iraola, Eva Martínez, Pablo San Martín, Beatriz Santisteban eta Raquel Sanz.

Proiektua 1995. urtean jarri zen martxan, 70eko hamarkadaz geroztik bildutako ikerketa esperientzia handia baliatuta. Helburu nagusia euskaldunen portaera politikoa eta iritziz publikoa aztertzea zen, eta horri erakundearen eta politika publikoaren analisiari eta bilakaerari lotutako beste helburu batzuk batu zaizkio. Zentzu horretan, **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN** jarduera oso emankorra izan da azken urteotan, eta horren erakusle dira bere iritziz barometroaren inkestak egindako oihartzuna eta egindako azterketa ugari. Gaur egun, Euskobarometro Taldea kalitate zientifikoa aitortua daukan talde bat dela esan dezakegu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sisteman ebaluatutako 200 ikertaldearen rankingeko lehen postuetan dago, eta 2013an lehen lekuari eutsi zion Gizarte Zientzietako ikertaldearen artean, bost urteren ondoren: www.ehu.es/euskobarometro.

- 1) Euskobarometro Taldearen lehen emaitza praktikoa datu-banku oparo bat sortzea izan da, sei hilabetearen behin egindako Euskobarometroa izeneko inkestetan eskuratutako datuak oinarri hartuta. Hemendik gutxira, bildu eta sistematizatutako milioika datu horiek guztiak on-line kontsultatu eta tratatu ahal izango dira; oraingoz, ordea, horien aukeraketa esanguratsu bat eskaini dezakegu. Datu horiek, 50.000 euskal herritarrek baino gehiagok eskuzabaltasunez emandako erantzunen bidez jasotakoak, kontsulta daitezke gure webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN SERIE KRONOLOGIKOEN** atalean.
- 2) Euskobarometro Taldeak berak Euskobarometroaren udaberriko eta udazkeneko inkestak emaitza nagusiak ematen ditu aditzera hedabideetan eta iritziz publikoaren aurrean. Emaitzetan datu politikoak, sozialak eta ekonomikoak ematen ditu. Datu horiek guztiak aipatutako webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN AURKEZPENAK** atalean kontsulta daitezke.
- 3) Euskobarometro Taldeak Euskadirako hauteskunde estimazioak aurreratu ohi ditu, hauteskunde garaian gauden aldiro. Euskobarometro Taldeak euskal hauteskunde autonomikoen inguruan egindako aurreikuspen horiek **EUSKOBAROMETROAREN HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK** atalean kontsulta daitezke, webgune berean.
- 4) Era berean, Euskobarometro Taldeak beste era bateko ikerketa eta aholkularitza lanak egiten ditu aldiari behin, analisi empirikoaren, erakunde ebaluazioaren eta politika publikoaren arloan, gehienbat. Jarduera horiek ikus daitezke ere **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN LANEN ZERRENDA** atalean, webgune berean.
- 5) Euskobarometro taldeak egindako lanen artean, bereziki aipatu behar dira generoari eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikei buruzko

ikerketak. Horren harira, taldeko irakasleak eta ikertzaileak hainbat ikerketa eta aholkularitza lan egiten ari dira erakundeekin batera, genero ikuspegia jardun publikoan txertatzeko eta sexuen arteko bazterkeriarekin amaitzeko aurrerapausoak emate aldera. Jarduera horiek guztiak ere webgune berean daude ikusgai, **GENERO IKERKETEN** atalean.

- 6) la hasieratik, **EUSKOBAROMETROAK** arreta berezia eskainiko dio Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi publikoaren ezagutzari, eta aitzindaria izan da arlo horretan. Hala, 1996. urteaz geroztik, **UPV/EHuren gizarte hedapenari buruzko ikerketa** argitaratu dugu urtero, eta lanaren azken edizioa gure webgunean kontsulta daiteke, errektoreak alde zuzenetik baimena emanda.
- 7) Euskobarometro Taldeak, 2000. urtean, Informazioaren Gizartearen Euskadiko Behatokia (IGEB) izeneko zerbitzu berria sortu zuen, informazioaren teknologia berriek euskal komunitatean duten eragina neurtzeko. Emaitzak kontsulta daitezke, halaber, webgune berean, **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EUSKADIKO BEHATOKIAREN (IGEB)** estekan.
- 8) Europan euroa indarrean sartu, erakundeak erreformatu, eta Europar Batasuna handitu denez eta nazioarteko egoera ere aldatu denez, gai horiekiko interesa areagotu dela ondorioztatu dugu, eta, horren harira, **EUROPAKO INTEGRAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EUSKAL BEHATOKIA (ENEB)** sortzearen beharra ikusi genuen. Behatoki horri buruzko informazioa ere orri horretan sartu genuen, 2001eko udazkeneko barometroaren ondoren.
- 9) 2001. urteaz geroztik, **EUSKOBAROMETROAK**, Bartzelonako, Granadako eta Santiagoko unibertsitate autonomoen (ICPS) eskualdeetako unibertsitate barometroekin batera, abian du **POLITIKA AUTONOMIKOAREN BEHATOKI (PAB) berria**, non beren galdetegiaren zati komunak partekatzen, alderatzen eta aldiaren behin zabaltzen diren. PABek webgune (www.opa151.com) eguneratu bat dauka, eta bertan eskualdeetako barometroetara sartzeko estekak ematen dira.
- 10) Horrez gain, azken urteotan, **EUSKOBAROMETRO TALDEAK** ikerketa nazionalen lerro berri bat ireki du, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziarekin (ANECA) izandako lankidetzaren emaitza gisa, **Espainiarrak eta Unibertsitatea** izeneko azterketa aitzindaria egin zen. **Espainiako unibertsitate sistemaren irudi publikoari buruzko lehen inkesta nazional hori** aipatutako erakundeak argitaratu zuen 2004an, eta gure webgunean kontsulta daiteke. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (TBF) eta Ikerketa Soziologikoen Zentroarekin lankidetzan egindako lanaren emaitza izan zen, halaber, **espainiarrei eta terrorismoaren biktimei buruzko azterlan** aitzindaria. **Estatuko lehen inkesta hura** CISEk argitaratu zuen, 2004an. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan ere, **“Percepción ciudadana sobre el terrorismo y sus víctimas”** izeneko estatu mailako II. inkesta argitaratu zen, 2005ean, eta izenburu bereko III., IV. eta V. inkestak 2006an, 2007an eta 2008an argitaratu ziren, hurrenez hurren. Lan horiek guztiak gure webgunean kontsulta daitezke.

*UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren
EUSKOBAROMETROA ikertaldeak, jarraian emandako
iruzkin eta datuen bidez, 2016ko urrian egindako
udazkeneko inkestaren emaitza nagusiak aurkezten
ditu.*

*Informazio hori kontsultatu eta sakondu daiteke gure
webgunean:*

www.ehu.eus/euskobarometro

Aurkibidea

I.	FITXA TEKNIKOAK	6
II.	EGOERA ETA KEZKA PERTSONALAK, GIZARTE ETA EKONOMIA GIROA, DEMOKRAZIAREN ONDOEZA ETA KONSTITUZIOARI EMANDAKO BABESA	7
III.	GOBERNU ETA POLITIKA GIROA ETA EBALUAZIOA, GOBERNUAREN ERAKETA ESPAINIAN, ALDERDIEN IBILBIDEA ETA BURUZAGI POLITIKOAK	19
IV.	HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK ETA HAIEN ONDORIOAK	33
V.	ABERTZALETASUN SENTIMENDUA ETA EUSKAL IDENTITATEA, ESPAINIAREN IDEIA, AUTOGOBERNUA, ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREKIKO ETA INDEPENDENTZiarekiko JARRERAK	51
VI.	ETA, TERRORISMOAREN AMAIERA, ETAko PRESOK, ETA A. OTEGIREN INHABILITAZIOAREN INGURUKO JARRERAK	69

I. go Atala

2016ko URRIKO EUSKOBAROMETROAREN FITXA TEKNIKOA

Egilea: UPV/EHuko Zientzia Politikoko Sailaren EUSKOBAROMETROA taldea **Francisco J. Llera Ramo** irakasleak zuzentzen du; **José M. Mata, Carmelo Moreno eta Alfredo Retortillo** irakasleek osatzen dute; eta, **Rafael Leonisio, Jonatan García eta Ion Baratasen** laguntza teknikoak jaso du.

Landa lana: Banakako elkarrizketak, **CPSren** landa sareak galdetegi egituratu batez etxez etxe egindakoak, 2016ko urriaren 3tik 27ra.

Unibertsoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

Laginaren tamaina: Etxeetan egindako 800 inkesta.

Laginaren diseinua: Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTATen** metodologiaren arabera, 22 udalerritako (2 Araban, 11 Bizkaian eta 9 Gipuzkoan) 40 errolda sekzioetan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu diren, adin eta sexu kuoten arabera.

Laginaren errorea: % 95eko konfiantza mailarako eta $p = q = 0,5$ biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako \pm % 3,46 da.

Igotzaileen kalkulua: Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, **EUSTATEk** 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta. Horrez gain, sekzioak aukeratzeko 2012ko Etxebizitzen Direktorioa erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.

II. Atala

Gehiengoak positiboki baloratzen du bere egoera pertsonala, 2016an, eta krisiaren aurreko aldartea berreskuratzen ari da.

Ezkortasuna eta mesfidantza Espainiako ekonomiarekiko, batik bat. Haatik, hobea da euskal ekonomiaren egoeraren gaineko pertzepzioaren bilakaera.

Ekonomia krisiaren eraginak sentitzen dituen gehiengo nagusiak apur bat atzera egin du.

Ekonomiaren bilakaeraren gaineko itxaropenek hobera egin dute, Euskadin bereziki.

Enpleguak kezka nagusia izaten jarraitzen du, baina nabarmen egin du atzera lehenengoz krisia hasi zenetik.

Hobekuntza egonkortzen da, politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduari eta politikan parte hartzeko beldur giroari dagokienez.

Demokraziaren ondoezaren gehiengoaren sentimendua mantentzen da.

Espainiako Konstituzioaren aurkako jarrera indartu da, aldekoari nagusituta.

GEHIENGOAK POSITIBOKI BALORATZEN DU BERE EGOERA PERTSONALA, 2016AN, ETA KRISIAREN AURREKO ALDARTEA BERRESKURATZEN DA.

Hiru euskaldunetarik bik (% 65) uste dute 2016. urtea ona izaten ari dela arlo pertsonalean, eta gainerakoek esperientzia negatiboren bat aipatu (% 15), edo jarrera eszeptikoa dute (% 20), urte hasieran egiaztatutako baikortasuna berreskuratu (+ 11 puntu) denetik bederatzi hilabetez egonkor igaro ondoren eta ezkortasun korrelatiiboak atzera egin (-7 puntu) ondoren. Orduan esan genuen bezala, bilakaera horrek erakusten digu ekonomia krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratu dela (ikus 1. grafikoa).

KRISIAK EUSKAL HERRITAR GEHIENEN ONGIZATEA KALTETZEN JARRAITZEN DU, EZKORTASUN EGONKORREKO TESTUINGURU BATEAN, BATEZ ERE, ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO. HORREN AURREAN, HOBEA DA EUSKAL EKONOMIAREN EGOERAREN BILAKAERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Eran berean, azken bederatzi hilabete hauetan eta urtarrilean izandako atzerapen nabarmenaren ondoren (-15 puntu), gehiengoaren ezkortasunak bere horretan jarraitzen du (% 73), Espainiako ekonomia osoan nagusi izanik; ia ez da baikorrik geratzen (% 2) eta eszeptikoak egonkortu dira (% 24). Halere, orain dela lau seihileko hasitako biderei jarraituta, euskal ekonomiaren gaineko giro ezkorra oraindik agerikoa bada ere (% 31), pertzepzio hori nabarmen ari da atzera egiten urte artekoan (-17 puntu) baikorren alde (% 21) eta, batik bat, eszeptikoen alde (% 47) (ikus 2. grafikoa).

EKONOMIA KRISIAREN ERAGINAK SENTITZEN DITUEN GEHIENGO NAGUSIAK APUR BAT ATZERA EGIN DU

Oraindik ere, hamarretatik zortzik baino gehiagok (% 83) krisiaren eraginak hautematen dituztela esaten duten arren eta intentsitate handiagoz hautematen dutenek bere horretan (% 44) jarraitzen duten arren, urte arteko atzeratze motel bat hasi da hautematen bi adierazleetan. Eragin horren intentsitatea nabarmenagoa da Bizkaian (% 48) eta Gipuzkoan (% 40), Araban baino (% 37) (ikus 3. grafikoa).

ENPLEGUAK KEZKA NAGUSIA IZATEN JARRAITZEN DU, BAINA NABARMEN EGIN DU ATZERA LEHENENGOZ KRISIA HASI ZENETIK

Enpleguarekiko kezka (% 56) lehen lekuan jarraitzen du, baina nabarmen egin du atzera azken bederatzi hilabeteetan (-14 puntu) eta lehenengoz krisia hasi zenetik. Askoz ere beherago ageri dira "gizarte desberdintasunak eta ongizatea" epigrafean bildu ditugun arazoak (% 16), nahiz eta igoera nabarmena izan (+7 puntu). Hirugarren lekuan dago egoera politikorekiko kezka (% 10), apur bat igo dena (+2 puntu). Jarraian, egoera ekonomikoa aipatzen da (% 9), azken seihilekoetan bost puntu atzera egin duena. Urrunago ageri da etxebizitza (% 2), eta, bien bitartean, indarkeriak, baketzeak, presoen gaiak edo euskal arazoak % 1en jarraitzen dute, eta oso atzean geratu dira, bestalde, ingurumena, immigrazioa eta beste gai batzuk (ikus 4. grafikoa).

POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUN SENTIMENDUAREN HOBEKUNTZA EGONKORTU DA, SEKTORE GUZTIETAN

Azken hiru urteotan gorabehera arin batzuk izan arren, adierazle horrek izandako aldaketa positiboaren ondoren, edonorekin politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduak aurreko urtean izandako hobekuntza indartu (+4 puntu) da, gehiengoak partekatzen baitu (% 58) berriro ere. Era berean, aukeratutako batzuekin bakarrik hitz egin dezaketela dioten gutxiengoak apur bat atzera egin dute (% 33), baita inorekin hitz egiteko gai ez diren gutxiengoak ere (% 8); halaber, ez da desberdintasun nabarmenik ageri sektore ideologiko edo identitarioen artean (ikus 5. grafikoa).

MANTENTZEN DA ERE POLITIKAN PARTE HARTZEKO BELDUR GIROAN IZANDAKO HOBEKUNTZA, SEKTORE GUZTIETAN

Azken sei hilekoetan izandako joera positiboa berretsi da, egonkortu egin baita politikan parte hartzeko beldurrik ez duten herritarren gehiengoa (% 79). Horien aurrean, ia bosten batek beldur kroniko hori jasaten du euskal gizartean (% 18). Azken lau urteetako joera positiboa errekor historikoak, positiboak nahiz negatiboak, lortu artearaino egonkortzeaz gainera, esanguratsuen da sektore ideologiko eta identitarioen portaera bateratua ematen ari dela (ikus 6. grafikoa).


DEMOKRAZIAREN ONDOEZAK BERE HORRETAN JARRAITZEN DU; IA HAUTESLERIA GUZTIEK PARTEKATZEN DUTE

Azken sei hilekotan izandako gorabeheren (positiboa eta negatiboa, hurrenez hurren) ondoren, gure sistema demokratikoaren funtzionamendurekin gogobeteta ez dauden herritarren gehiengoa egonkortu da (% 79), harekin gogobeteta dagoen gutxiengoaren aurrean (% 19). Hala, Espainiako eta EBko batez bestekoaren azpitik jarraitzen dugu. Berriro ere, bai abertzaleek (% 82) bai ez-abertzaleek (% 75) gustura ez daudela berretsi dute, eta bien pertzepzioak hurbildu egin dira. Demokraziaren ondoezaren sentimendu hori ia hautesleria guztiek partekatzen dute (PPren % 53tik EHBren % 89ra). Popularren gehiengoaren iritzi aldaketa da adierazgarriena (ikus 7. grafikoa).

ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN AURKAKO JARRERA INDARTU DA, ALDEKOARI NAGUSITUTA.


Gaur konstituzioa bozkatzeko erreferenduma berriro egingo balitz, EZEZKOA (% 37) indartuko litzateke, +7 puntu gehiago eskuratuta, eta BAIEZKOKOARI gailenduko litzaiok berriro (% 27). Hala, azken urteko joera aldaketari eusten zaio, urte artekoan lehenengoa nabarmen aurreratu (+ 10 puntu), eta bigarrenengoak atzerapen korrelatiboa izan baitu. Aldeko iritzia, neurri batean, gehiago ageri da ez-abertzaleen artean (% 33), baina partekatzen du ere bost abertzaleetatik batek (% 20). Bestalde, orain dela hogeita hamar urteko ezezko botoak nabarmen egin du aurrera (+7 puntu, azken urtean) abertzaleen artean (% 50). Aurreko hauteskunde autonomikoen hautesleriari erreparatua, baiezkoaren aldekoak popularrak (% 80), sozialistak (% 55) eta C'skoak (% 50) dira; haatik, ezezko botoa soilik da nagusi EHBren (% 73) boto emaileen artean, askoz zaituago ageri baitira PNVren eta Elkarrekin Podemosen boto emaileak (ikus 8. grafikoa).

1. Grafikoa: EUSKALDUNEN EGOERA PERTSONALAREN BILAKAERA, 1993-2016




2. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

ESPAINIAKOA




EUSKADIKOA




3. Grafikoa: KRISI EKONOMIKOAREN ERAGIN PERTSONALA

Araba= %22 (=)
Gipuzkoa= %18 (+3)
Bizkaia= %15 (+5)




Araba= %37 (-1)
Gipuzkoa= %40 (-5)
Bizkaia= %48 (-2)


4. Grafikoa: EUSKALDUNEN HIRU KEZKA NAGUSIAK (ERANTZUN ANIZTASUNAREN BATURA)



5. Grafikoa: POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUNA




6. Grafikoa: POLITIKAN PARTE-HARTZE AKTIBOA IZATEKO BELDURRA IZATEAREN PERTZEPZIOAREN BILAKAERA, 1996 ETA 2016 ARTEAN*




* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2016ko urtarria)

7. Grafikoa: GOGOBETETZE MAILA GURE DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO



8. Grafikoa: ESPAINIAKO KONSTITUIZIARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1878 ETA 2016 ARTEAN



* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2016ko urtarria)



III. Atala

Politikarekiko interesik eza eta desfekzioa orokortu dira, eta areagotzeko joera dute.

Espainiako egoerari buruzko ezkortasunak errekor historikoa gainditu du; bien bitartean, hobetzen jarraitzen du euskal politikaren balorazioak, eszeptizismoa nagusi den arren.

Tentsio politikoaren eta gizarte asalduraren bilakaera positiboa nabarmen igo da.

Urkullu lehendakariak eta haren gobernuak nabarmen hobeto dute beren aurreko nota, gehiengoak eta ia hautesleria gehienek gainditua eman baitiete.

Soilik PNvk lortu du saldo positiboari eustea, herritarrek euskal alderdiei emandako balorazioan; Elkarrekin Podemos atzeratu da gehien; eta, PSE-EE baloratzen dute gutxien bere boto emaleek.

Euskal gizartearen gehiengoak Espainian PSOEn gobernu baten alde egiten zuen, Podemosen eta abertzaleen babesarekin.

Lehenengoz, buruzagi batzuek gainditua lortu dute: M. Larrion, I. Urkullu, A. Garzón, N. Alba eta A. Ortuzar.

POLITIKAREKIKO INTERESIK EZA ETA DESAFEKZIO OROKORTU DIRA, ETA GORAKO JOERA DUTE

Demokraziaren erabateko ondoeza eta ezkortasun politikoa lotuta daude, zalantzarik gabe, politikarekiko urruntze maila handiarekin; izan ere, euskal iritzi publikoaren gehiengoak, bi urte igaro ondoren, politikarekiko urruntze sentimenduak adierazten ditu oraindik, baita sentimendu ezkorrak ere. Soilik gutxiengo batek (% 14) --- duela bederatzi hilabete baino 10 puntu gutxiago --- erakusten du politikarekiko entusiasmoa (% 0), konpromisoa (% 4) edo, besterik gabe, interesa (% 10); haatik, gainerakoek (% 86) axolagabetasun sentimenduak (% 11), asperdura (% 22), mesfidantza (% 33) eta haserrea (% 20) adierazten dute, eta guztiz negatiboak diren azken hiru horiek dira nagusi (% 75) eta gehien igo direnak (+15 puntu) (ikus 9. grafikoa).

ESPAINIAKO EGOERARI BURUZKO EZKORTASUNAK ERREKOR HISTORIKOA GAINDITU DU; BIEN BITARTEAN, HOBETZEN JARRAITZEN DU EUSKAL POLITIKAREN BALORAZIOAK, ESZEPTIZISMOA NAGUSI DEN ARREN

Espainiako egoera politikoa gaineko ezkortasunak, ia erabatekoak, bere errekor historiko bat (% 88) gainditu du, eta aurreko seihilekoetako hobekuntza joerak irauli ditu (+17 puntu azken bederatzi hilabeteetan). Hala, ia ez da baikorrik geratzen (% 1) eta hamarretik bat eszeptikoa da (% 10). Aitzitik, euskal politikaren gaineko balorazioak astiro hobetzeko bideari eusten dio, eta, berriro ere, gehiago dira baikorrak (% 31) ezkorrak baino (% 20), bi taldeen arteko aldea 11 puntura arte handitzera ekarri duten seihilekoetako aurrerapen eta atzerapen korrelatiboen ondoren. Gainerakoan, kasu honetan, eszeptizismoak nagusi (% 47) eta egonkorra izaten jarraitzen du azken bederatzi hilabeteetan, aurreko urtean zortzi puntuko atzerapena izan ondoren. Abertzaleak eta ez-abertzaleak bat datoz, berriro ere, Espainiako egoera politikoa buruz nagusi den ezkortasunean (% 91 eta % 85, hurrenez hurren), eta, oraingoan, bat datoz ere euskal egoera politikoa gaineko eszeptizismoan (% 42 eta % 53, hurrenez hurren) (ikus 10. grafikoa).

TENTZIO POLITIKOAREN ETA GIZARTE ASALDURAREN BILAKAERA POSITIBOA NABARMEN IGO DA

Gizarte asaldurak atzera egin izanaren pertzepzioari buruzko gehiengoaren iritzi baikorrak (% 69) nabarmen egin du hobera, azken bederatzi hilabeteetan + 10 puntu igo baita, eta horren gainean bat datoz modu nabarmenean abertzaleak (% 71) eta ez-abertzaleak (% 69). Hala eta guztiz ere, eta atzerapen paraleloa izanda (-10 puntu), lautik batek baino gehiagok (% 28) egiaztatzen dute oraindik beren inguruan gizarte

asaldura areagotzen ari dela alderdi politikoen arteko zatiketa eta etengabeko liskarren ondorioz (ikus 11. grafikoa).

URKULLU LEHENDAKARIAK ETA HAREN GOBERNUAK NABARMEN HOBETO DUTE BEREN AURREKO NOTA, GEHIENGOAK ETA IA HAUTESLERIA GUZTIEK GAINDITUA EMAN BAITIETE

Euskal gizarteak iritzi positiboa du (% 49), Iñigo Urkullu buru den Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa baloratzeko unean, azken bederatzi hilabeteetan +15 puntuko igoera nabarmena izan ondoren. Gehiengoaren iritzi positibo horren aurrean, eszeptikoeak atzera egin dute herenetik gertu geratu arte (% 35), eta iritzi negatiboa, berriz, hamarretik batera jaitsi da (% 12). Iritzi positiboak garbiri nabarmentzen dira abertzaleen artean (% 58), eta gehienak PNVren (% 83), PPren eta C´sen boto emaileen artean ematen dira, eta, oro har, ez-abertzaleen artean (% 42). Beste muturrean, balorazio negatiboa ez da gehiengoa hautesleria bakar batean ere, eta ezkerreko aukeretakoto boto emaileen artean eszeptizismoa da nagusi (ikus 12. grafikoa).

Bestalde, emandako batez besteko kalifikazioa gaindituaren gaintetik dago (5,8) beste behin, urte hasierako nota hobetuta. Batez besteko kalifikazio hori gaintitzen dute PNV beraren boto emaileek (7), PPkoek (6,5) eta PSE-EEkoek (6,1), eta horretara iristen dira C´skoak (5,8); Elkarrekin Podemoseko boto emaileek ozta-ozta ematen diote gaintitua (5,1) eta EHBkoak bakarrik geratzen dira gaintituaren atarian (4,8). Era berean, gehiago dira, berriro ere, gobernuaren kudeaketa ontzat eman dutenak (% 81), eman ez dutenak baino (% 17), azken bederatzi hilabeteetan, hurrenez hurren, aurrerapen (+8 puntu) eta atzerapen (-7 puntu) nabarmenak eman ondoren.

SOILIK PNVK LORTU DU SALDO POSITIBOARI EUSTEA, HERRITARREK EUSKAL ALDERDIEI EMANDAKO BALORAZIOAN; ELKARREKIN PODEMOS ATZERATU DA GEHIEN; ETA, PSE-EE BALORATZEN DUTE GUTXIEN BERE BOTO EMAILEEK.

Elkarrizketatuei eskatu diegu euskal talde parlamentarioen ibilbide politikoa baloratzeko, azken hilabeteetako jarduna kontuan hartuta, eta soilik PNVk lortu du berriro iritzi positiboaren (% 48) eta negatiboaren (% 12) arteko saldo positiboa lortzea eta hobetzea, (+36 puntu guztira eta +9 puntu hobeto). Aitzitik, gainerako alderdien saldoa negatiboa da, EHBren gutxienerako -6 puntutik (+% 23 eta -% 29), PPren gehieneko -70 puntura (+% 2 eta -% 72), tartean egonda Elkarrekin Podemosen -9 puntuak (+% 17 eta -% 26), PSE-EEren -47ak (+% 5 eta -% 52) eta C´sen -52ak (+% 4 eta -% 56); hortaz, oro har, okerrera egin dute guztiek. Bestalde, hautesleria propioen balorazio positiboak dagokienez, PSE-EEk jaso du balorazio txikiena (% 31) eta PNVk, handiena

(% 83); bi horien artean daude C's (% 33), Elkarrekin Podemos (% 41), gehien atzeratu dena, PP (% 47) eta EHB (% 65) (ikus 13. grafikoa).

EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOAK ESPAINIAN PSOEren GOBERNU BATEN ALDE EGITEN ZUEN, PODEMOSEN ETA ABERTZALEEN BABESAREKIN

Mariano Raxoiren gobernuaren kudeaketaren gaineko euskal gizartearen erabateko eta etengabeko gaitzespena legealdiaren amaieran (% 88) kontuan hartuta, ulergarria da gehiengoak (% 56) beste gobernu baten alde egitea, zeina PSOEek gidatuko lukeen, PODEMOSekin eta abertzaleekin akordio batera iritsita. Gehiengo horren aurrean, soilik % 11k babesten du azkenean atera den gobernu, eta % 15, berriz, hirugarren hauteskundeak egitearen alde legoke. Gehiengoaren formula hori PNVren (% 59), sozialisten (% 72), Elkarrekin Podemosen (% 70) eta EHBren (% 74) hautesleriek lehenesten zuten, eta gutxiengoena, berriz, PPren (% 80) eta C'sen (% 83) hautesleriek, baina gainerakoen babesekin (ikus 14. grafikoa).


LEHENENGOZ, BURUZAGI BATZUEK GAINDITUA LORTU DUTE: M. LARRION, I. URKULLU, A. GARZÓN, N. ALBA ETA A. ORTUZAR

Buruzagi politikoen balorazioetan, seihilekoan ia nagusi izan da aurrerapena, bat eta sei dezimen arteko irabaziaz izanda, eta aurreko seihilekoen ordena zertxobait aldatu da. Ezagutza mailari dagokionez, bere horretan geratu dira batzuen eta besteen arteko aldeak. Oraingoan, M. Larrion EHBren buruzagia geratu da lehen postuan (5,6, haren ezagutza maila soilik % 22 den arren), eta haren atzetik geratu dira, hurrenez hurren: I. Urkullu lehendakaria (5,5, sei hamarren hobeto eta % 94ko ezagutza maila), A. Garzón (5,2, hiru hamarren hobeto eta % 70eko ezagutza maila), N. Alba (5,2 eta soilik % 23ko ezagutza maila), eta gainditutakoen taldeko azkena, A. Ortuzar (5,1, bost dezima hobeto eta % 63ko ezagutza maila). Gainditzetik gertu geratu dira P. Iglesias (4,7, bi hamarren okerrago eta % 94ko ezagutza maila) eta P. Zabala (4,7 eta % 57ko ezagutza maila); horien atzean geratu dira: A. Otegi (4,5, lau hamarren hobeto eta % 88ko ezagutza maila), I. Mendia (4, hiru hamarren hobeto eta % 69ko ezagutza maila), P. Sánchez (3,6, hiru hamarren hobeto eta % 93ko ezagutza maila), G. Maneiro (2,4, hiru hamarren hobeto eta % 40ko ezagutza maila), N. de Miguel (2,2 eta % 16ko ezagutza maila), A. Rivera (2, lau hamarren gutxiago eta % 90eko ezagutza maila), eta, zerrendaren azken lekuetan popularrak, hau da, A. Alonso (2, hamarren bat gutxiago eta % 66ko ezagutza maila), S. Sáenz de Santamaría (1,8, hiru hamarren gutxiago eta % 91ko ezagutza maila) eta M. Raxoi (1,3, hamarren bat gehiago eta % 97ko ezagutza maila). (ikus 15. grafikoa).


Bestalde, beren hautesleriak hobeto baloratutako buruzagien zerrendako lehen posizioetan daude: N. de Miguel (8), A. Otegi (7,9), M. Larrion (7,4), I. Urkullu (7,1), A. Rivera (7), P. Iglesias (6,9), M. Raxoi eta N. Alba (6,8), A. Alonso (6,6), A. Garzón eta A. Ortuzar (6,5) eta S. Sáenz de Santamaría (5,9); bestetik, I. Mendiak (5,8) eta P. Sánchezek (5,5) jaso dute beren hautesleriaren baloraziorik okerrena.

Amaitzeko, puntuazio horiek onarpen indizearekin osatzen baditugu (gutxienez, gainditu bat dutenen ehunekoa), rankingaren buru I. Urkullu dago (% 68), eta haren atzetik P. Iglesias (% 57), bi horiek izanik, berriro ere, gaindituen gehiengoa lortu duten bakarrak. Haien atzean daude, hurrenez hurren: A. Otegi (% 48), A. Garzón (% 47), A. Ortuzar (% 41), P. Sánchez (% 38), P. Zabala (% 36), I. Mendiá (% 32), A. Rivera, N. Alba eta M. Larrion (% 16), S. Sáenz de Santamaría (% 15), A. Alonso (% 12), eta, azken lekuetan, M. Raxoi (% 9), G. Maneiro (% 8) eta N. de Miguel (% 3). Azken bederatzi hilabeteetan izandako bilakaerari erreparatuz gero, I. Mendiak eta A. Ortuzarrek (+9 puntu), I. Urkulluk eta A. Otegik (+7 puntu) eta A. Garzónnek eta P. Sánchezek (+6 puntu) izandako gorakadak nabarmentzen dira; aldiz, gainerakoen onarpen mailek apur bat behera egin dute (ikus 16. grafikoa).


9. Grafikoa: POLITIKAREKIKO SENTIMENDUAK



10. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOA



11. Grafikoa: EUSKALDUNEN PERTZEPZIOA GIZARTE ASALDURAREN GORAKADAREN INGURUAN




12. Grafikoa: EGUNGO EUSKO JAURLARITZAREN BALORAZIOA ETA HAREN KUDEAKETARI JARRITAKO NOTA

BALORAZIOA

PNV= %83 (+5)


Abe=%58 (+12)
Ez abe.= %42 (+16)



EHB= %30 (-6)
Podemos=%16 (=)
Abst.= %13 (-5)
PSE-EE=%5 (-11)

Abe.= %13 (-2)
Ez abe.= %12 (-4)


NOTA




BATAZBESTEKO NOTA = 5,8 (+0,4)

PNV= 7,0(+0,1)
PP= 6,5 (+1,6)
PSE-EE= 6,1 (+0,9)
Abst.= 5,3 (+0,2)
Podemos=5,1 (=)
EHB= 4,8 (+0,4)

13. Grafikoa: ALDERDI POLITIKOAREN AZKEN HILABETEETAKO IBILBIDEAREN BALORAZIOA



14. Grafikoa: ESPAINIAN GOBERNUA ERATZEKO AUKERAK




15. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN BALORAZIOA EUSKADIN

OSO EZAGUNAK




EZ HAIN EZAGUNAK



% baloratzen duten elkarrizketatuen ehunekoa

Euskobarómetroa 2016ko urria

16. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN ONARPEN INDIZEA EUSKADIN





IV. Atala

Euskal gizartea zatituta ageri da irailaren 25eko hauteskunde emaitzetan, baina ez luke botoa aldatuko.

Euskal iritzi publikoaren gehiengoak uste du emaitzak positiboak izan direla Euskadirako, baina iritzia zatituago dago horiek Espainian izan dezaketen eraginari dagokionez.

Gehien-gehienek erabakia hartua zuten hauteskunde kanpaina baino lehen, baina ez zuten erabateko konbentzimenduz bozkatu.

Boto emaile gehienek beren betiko alderdiarekiko leialtasunez jokatu dute, eta gutxiengo batek hartu du kontuan botoak Espainiako gobernuaren eraketan izan dezakeen eragina.

Alderdi identifikazioa eta eskaintza bakoitzaren profil bereizgarriak konbinatzen dira, euskal hautesleriaren botoaren arrazoiak ematean

Alderdiak boto emaileak baino polarizatuago daude, eta gehiago dimentsio identitarioan ideologikoan baino.

Alderdi bakoitzaren botoaren leialtasuna eta aukeren arteko aldakortasuna abenduaren 20ko hauteskundeetan emaitzaren gakoak dira.

Iritzien zatiketa baten erdian, euskal gizarteak lehenetsitako aukera I. Urkullu buru den koalizio gobernua da, gehiengo absolutua izan ala ez.

PNVren eta PSE-EEren arteko akordioa da emaitza gertagarriena gehiengoarentzat, eta, maila apalagoan, euskal gizarteak aukera hori lehenesten du, horri dagokionez nabarmen zatituta ageri bada ere.

EUSKAL GIZARTEA ZATITUTA AGERI DA IRAILAREN 25EKO HAUTESKUNDE EMAITZEN AURREAN, BAINA EZ LUKE BOTOA ALDATUKO

Orain dela lau urte ez bezala eta, batik bat, 2015eko abenduaren hauteskunde orokorren ondoren, euskal gizartea zatituta dago: erdia eta erdia. Hala, batetik, irailaren 25eko hauteskundearen emaitzekin gogobeteta daudenak ditugu (% 49) ---% 57 2012an edo % 29 2016ko urtarrilean---eta, bestetik, gogobeteta ez daudenak (% 48) ---% 36 eta % 69, hurrenez hurren. Gogobetetzea nabarmena izan da Araban (% 62), abertzaleen artean (% 62) eta PNVren (% 87) eta EHBren (% 52) hautesleriaren artean; bien bitartean, gogobetetzetik eza izan da nagusi ez-abertzaleen (% 57), abstentzionisten (% 57) eta gainerako hautesleriaren artean (PPren % 73tik C´sen % 83ra, tartean egonda Elkarrekin Podemosen % 71 eta PSE-EEren % 76). Hauteskunde ondoko giro horrek berriro kontrastatzen du, argi eta garbi, hauteskunde orokorren emaitzekin (ikus 17. grafikoa).

Hala ere, ohikoa izaten denez, gehien-gehienek, hau da, hamarretik bederatzik baino gehiagok (% 93) ez luke bere botoa edo abstentzioa aldatuko; % 1ek abstentziora jo, edo zuri bozkatuko luke; % 2 bozkatzera joango litzateke; % 2k botoa aldatuko luke; eta, % 3k ez daki zer egingo lukeen suposizio horretan. Botoa aldatuko luketenen artean, nagusi dira C´s (% 17) eta PSE-EE (% 14) alderdiei bozkatu zietenak.

EUSKAL IRITZI PUBLIKOAREN GEHIENGOAK USTE DU EMAITZAK POSITIBOAK IZAN DIRELA EUSKADIRAKO, BAINA IRITZIA ZATITUAGO DAGO HORIEK ESPAINIAN IZAN DEZAKETEN ERAGINARI DAGOKIONEZ

Abenduaren 20ko hauteskundearen emaitzek Espainiako eta Euskadiko etorkizuneko izango dituzten eragin positiboak edo negatiboak buruz galdetu diegu elkarrizketatuei, eta orain dela lau urtekoaren ia berdina den diagnostiko hau eskuratu dugu: hirutik bik osatutako gehiengo batek (% 62) positibotzat jotzen ditu emaitzak Euskadira, eta lautik bat baino apur bat gutxiago (% 22), ordea, ezkorra ageri da emaitzen aurrean; pertzepzio baikor nagusi hori abertzaleek (% 74) eta ez-abertzaleek (% 53) partekatzen dute, eta, gutxi-asko, hautesleria guztietan nabarmentzen da (sozialisten gutxieneko % 45etik PNVren gehieneko % 94ra). Nolanahi ere, emaitzek Espainiako etorkizunean izango duten eraginari dagokionez iritziak askoz ere zatituago daude baikorren (% 37) --- abertzaleak (% 40) eta PNVren (% 60) eta PPren (% 53) boto emaileak --- eta ezkorren artean (% 32), non gainerako hautesleriak biltzen diren (ikus 18. grafikoa).

IRAILAREN 25EAN BOZKATU ZUTEN GEHIEN-GEHIENEK ERABAKIA HARTUA ZUTEN, HAUTESKUNDE KANPAINA BAINO LEHEN, BAINA EZ ZUTEN ERABATEKO KONTZENTZIMENDUZ BOZKATU

Gure elkarrizketatuei botoa noiz erabaki zuten galdetuta, gehien-gehienek, bostetik lauk baino gehiagok (% 81), hauteskunde kanpaina hasi aurretik erabakia hartua zutela adierazi zuten; gainerakoan, % 8k kanpaina egunetan erabaki zuten; % 9k hauteskundearen egun berean; eta, % 2k ez zion galdera honi erantzun. Profila orain dela

lau urtekoaren ia berdina da, baina azken orduko botoa apur bat igo da (+3 puntu) (ikus 19. grafikoa).

Gehiengoak konbentzimenduz (% 52) eta are ilusioz (% 18) bozkatu bazuen ere, % 16k zalantzez bozkatu zuen, eta gaitz erdia zelakoan. Konbentzimendua PPren, PNVren eta EHBren hauteslerietan nabarmentzen da; zalantzak, sozialisten, Elkarrekin Podemosen eta C'sen hauteslerietan, eta gaitz erdi izatea, popularren eta C'sen hauteslerietan.

IRAILAREN 25EAN ABSTENITU ZIREN GEHIENEK ERABAKIA HARTUA ZUTEN HAUTESKUNDE KANPAINA BAINO LEHEN

Halere, abstentzionisten artean bereizi behar dira sekula botoa ematen ez dutenak (% 30), kanpaina baino lehen erabakitzen dutenak (% 43), eta kanpaina erabaki dutenak (% 25), 2012an gertatutakoa errepikatuz. Haien arrazoiak hauek dira: gustuko aukerarik ez izatea (% 24), asperdura (% 24), ezintasuna (% 18), mesfidantza (% 16), haserrea adieraztea (% 7) eta argitu gabeko zalantzak (% 3), alde batera utzita osasunari, lanari, lekualdatzei eta abarri lotutako arrazoiak (ikus 20. grafikoa).

BOTO EMAILE GEHIENEK BEREN BETIKO ALDERDIAREKIKO LEIALTASUNEZ JOKATU DUTE, ETA GUTXIENGO BATEK HARTU DU KONTUAN BOTOAK ESPAINIAKO GOBERNUAREN ERAKETAN IZAN DEZAKEEN ERAGINA

Hautesleriaren % 20k, gutxienez, inoiz bozkutzen ez duen bezala, herenek leialtasunez bozkatu dute bere alderdia (% 33); hori dela eta, irailaren 25eko hauteskunde autonomoetan bozkatu zutenen % 44k beren betiko alderdia bozkatu zuten; % 46k joan-etorriko aukera bat bozkatu zuten; eta, % 8k, berriz, lehenengoz bozkatu zuten. Jakina, betiko alderdiak eta boto emaile leialen pisu erlatibo gehieneko hurrenkeran, PP, EHB, PNV eta PSE-EE alderdiak daude, eta boto berriak eta lehen aldikoak Elkarrekin Podemos eta C's alderdietan bildu dira ---ikus 21. grafikoa---

Bi hauteskunde orokorren ondoren (asperdura igo da abstentzioa hautatzeko arrazoiaren artean) Espainiako gobernuaren eratzeko porrota ikusita eta gehiengoaren eraketan Euskadiko eta Galiziako hauteskundearen emaitzek izan zezaketen eragina kontuan hartuta, elkarrizketatuei galdetu diegu ea zenbateraino hartu zuten kontuan egoera hori botoa erabakitzeko unean. Gauzak horrela, hirutik bik esan dute horrek ez duela inolako eraginik izan beren erabakian (% 66), e hamarrenta herenak, berriz, inguruabar hori kontuan hartu dutela esan dute (% 31); batez ere, Araban, ez-abertzaleen artean, eta, hurrenez hurren, PPren, Elkarrekin Podemosen, C'sen eta PSE-EEren boto emaileen artean.

ALDERDIKO IDENTIFIKAZIOA ETA ESKAINTZA BAKOITZAREN PROFIL BEREIZGARRIAK KONBINATZEN DIRA, EUSKAL HAUTESLERIAREN BOTOAREN ARRAZIOAK EMATEAN

Hautesleria bakoitzaren bozkatzeko arrazoiak dagokienez, PNV, bere hautesleria (% 36) alde batera utzita, bozkatu dute krisia kudeatzeko hobeto prestatutako alderdia delako (% 19) eta identitatea eta autogobernua bermatzen dituelako (% 19), ba-

kearen alde egin duelako (% 13), hautagai egokia duelako (% 5), eta EHB-Elkarrekin Podemos gobernu alternatiboa saihesteko, besteak beste. EHB, berarekin identifikatutako hautesleria leiala (% 70) alde batera utzita, bozkatu dute indarkeria gaitzetsi duelako (% 11), independentziaren alde dagoelako (% 8), bakea ekarri duelako (% 5) eta hautagai egokiak dituelako (% 1). Amaitzeko, Elkarrekin Podemos bozkatu dute bere ideologiarekin identifikatzen direlako (% 34), berritzeko premia dagoelako (% 32), aldaketa erradikalak proposatzen dituelako (% 22), ustelkeriarik ez dutelako (% 4), erabakitzeko eskubidearen alde dagoelako (% 2) eta hautagai egokia duelako (% 3). PSE-EE, batez ere, berarekin identifikatutako boto emaile leialenek (% 67) bozkatu dute, eta, horiek alde batera utzita, PPren gobernu bat saihesteko (% 14), bakea eta etorkizuna bermatzen duelako (% 9) eta hautagai egokia duelako (% 2) bozkatu dute. Amaitzeko, PP, bere hautesleria (% 27) alde batera utzita, bozkatu dute krisia kudeatzeko gaitasuna duelako (% 33), terrorismoaren eta nazionalismoaren aurrean jarrera irmoa duelako (% 13), Espainian gobernu eratzten laguntzeko (% 13) eta hautagai egokia duelako (% 7) (ikus 22. grafikoa).

ALDERDIAK BOTO EMAILEAK BAINO POLARIZATUAGO DAUDE, ETA GEHIAGO DIMENTSIO IDENTITARIOAN IDEOLOGIKOAN BAINO

Elkarrizketatuei eskatu diegu beren burua eta alderdi politikoak ezker-eskuin eskala ideologiko batean kokatzeko, Euskadiko hautesleriaren eta alderdien polarizazio ideologikoaren eredia lortze aldera. Gauzak horrela, euskal hautesleria, batez beste, zentro-ezkerrean kokatzen da (3,8, 1-10 arteko eskala batean), eta muturreneko alderdien (PP eta EHB) boto emaileen arteko tarte ideologikoa 4,2 puntukoa da (gehieneko 9ren gainean). Horrek herritarren % 47ko polarizazio indizea ematen digu, egonkortzeko joerarekin. Haatik, hautesleriak bozkaturako alderdiei ematen dien kokapena aintzat hartzen badugu, distantzia ia bikoitza da (5,5); hortaz, alderdien polarizazio indizea % 61 da, dinamika lehiakor zentrifugoena berretsita, baina apur bat moderatuagoa. Hala, PP (+09) , PNV (+1) eta PSE-EE (+1) alderdietako boto emaileek beren alderdiak zentrorago eta eskuinerago kokatzen dituzte, alderdiek eurek baino. Elkarrekin Podemos (-0,2) eta EHB (-0,4) alderdiak, ordea, ezkererago ikusten dituzte beren boto emaileek, eta horrek balizko aldakortasun handiagoa ekar dezake (ikus 23. grafikoa).

Aldi berean, elkarrizketatuei eskatu diegu beren burua eta alderdi politikoak abertzaletasun-espainolismo eskala identitario batean kokatzeko. Modu horretan, Euskadiko hautesleriaren eta alderdien polarizazio identitarioaren eredia lortu dugu. Gauzak horrela, euskal hautesleria, batez beste, abertzaletasun moderatuan kokatzen da (4,1, 1-10 arteko eskala batean), eta muturreneko alderdietako (PP eta EHB) boto emaileen arteko tarte identitarioa 5,4 puntukoa da (gehieneko 9ren gainean). Horrek % 60ko polarizazio indizea ematen digu, baino askoz ere moderatuagoa (-1 puntu eta -% 11, hurrenez hurren) arlo ideologikoan jasotakoa baino. Haatik, hautesleriek bozkatzten dituzten alderdiei ematen dieten kokapena aintzat hartzen badugu, tartea handiagoa da berriro (6,7), eta horrek alderdien % 74ko polarizazio indizea ematen digu, boto emaileena baino dinamika lehiakor polarizatuagoa berretsita, baina azken bederatzi hilabeteetan moderatzeko joerarekin (-07 puntu eta -% 3). Hala, PP (+0,8), PSE-EE (+01) eta Elkarrekin Podemos (+0,6) alderdietako boto emaileek beren alderdiei espainolismo maila handiagoa ematen diete, alderdiek eurek beren

buruari emandakoa baino; bestalde, PNVren (-0,7), eta EHBren (-0,5) boto emaileek beren alderdiei abertzaletasun erradikalagoa ematen diete, eta horrek ere balizko aldakortasun handiagoa indartu dezake (ikus 24. grafikoa).

ALDERDI BAKOITZAREN BOTOAREN LEIALTASUNA ETA AUKEREN ARTEKO ALDAKORTASUNA ABENDUAREN ZOKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAREN GAKOAK DIRA

2012ko hauteskunde autonomikoen eta 2016koen arteko boto transferentzia airtortuen matrizearen azterketak ahalbidetzen digu jakitea, gutxi-asko, 2012ko boto emaile biziak nora joan diren eta 2016ko hauteskundeetan aukera politiko bakoitzaren babesak nola osatzen diren. Kontuan hartu beharko dugu ezin dugula zehaztasunez jakin izandako boto aldaketak; izan ere, soilik hautesle bizen boto adierazia (eta ez boto guztia) izateaz gainera, laginaren errorearen marjinak areagotzen joaten dira, lagina hautesleriaren arabera zatitu ahala, eta, batez ere, ehunekoak gutxitzen dira (ikus 25. grafikoa).

2012ko boto emaileen eta ez-emaileen norakoari eta 2016ko hautesleriaren jatorriari buruzko bi grafikoa kontuan hartzen baditugu, lehenik eta behin, hautesleria bakoitzaren leialtasun maila desberdina dela egiaztatu dezakegu; hala, leialtasun txikiena PSE-EEen (% 56) dugu, handiena, PNVn (% 75) eta EHBn (% 73), eta PP eta IU (Elkarrekin Podemosekiko) % 70ren azpitik geratzen dira.

PNVren ia 400.000 botoen jatorria (15.000 inguru gehituta), aurreko botoa izateaz gainera (% 82), espektro politiko osoan dago, eta positiboki konpentsatzen du abstentziara eta gainerako alderdietara joandako botoen galera. EHBren 225.000 botoei dagokienez, 50.000 boto inguru galdu ditu, 2012ko botoekin alderatuta (hautesleriaren ia bosten bat), eta horien jatorria bere aurreko botoa da (% 82), eta gainerako aukeretatik jasotakoa. Halere, ez du konpentsatzen; batez ere, Elkarrekin Podemoseara, abstentziara, eta PNVra joandako botoen galera. Elkarrekin Podemosen 157.000 botoen jatorria espektro zabal batean dugu, nagusiki: IU (% 29), EHB (% 13), PNV (% 13), PSE-EE (% 12), abstentzioa (% 11), eta boto emaile berriak (% 3). PSE-EEren 126.000 botoen (ia 90.000 boto galduta) jatorria, bere aurreko botoa (% 76) izateaz gainera, PNVn, IU eta abstentzian dago. Halere, ez du konpentsatzen; batez ere, Podemoseara (% 18) edo abstentziara (% 18) joandako botoen galera. PPren 108.000 botoak (20.000 boto inguru galdu ondoren) ia osorik datoz bere aurreko bototik (% 93). Ezin du konpentsatu, halere, abstentziara, C´sera edo PNVra joandako botoen galera. C´sek eskuratutako 20.000 inguru botoen jatorria, berriaz, PPN, UPyDn, PNVn eta abstentzian legoke. Bestalde, 65.000 hautesle berriei dagokienez, gehien aukera nagusiak hauek izan dira: abstentzioa (% 38), Elkarrekin Podemos (% 19), EHB (% 19) eta PNV (% 5). Amaitzeko, aurreko abstentzionistez gainera (% 48), abstentzioak alderdi guztietatik jasotzen ditu boto emaileak, eta, bereziki PNVtik eta PSE-EEtik.

IRITZIEN ZATIKETA BATEN ERDIAN, EUSKAL GIZARTEAK LEHENETSITAKO AUKERA I. URKULLU BURUDEN KOALIZIO GOBERNUA DA, GEHIENGO ABSOLUTUA IZAN ALA EZ

Irailaren 25eko hauteskunde autonomikoen ondoren gehiengo gobernu bat eratze-ko zailtasunak ikusita eta orain dela lau urteko hauteskunde autonomikoetan edo

iazko udal eta foru hauteskundeetan gertatu bezala, Euskadin gobernua osatzeko lehenesten dituzten aukerei buruz galdetu diegu euskaldunei. Aukeren pluraltasunaren barruan, euskal gizartearen gehiengoak (% 53) nahiago du hainbat alderdik eratutako koalizio gobernu bat da, gehiengo absolutuarekin (% 29) edo gabe (% 24), alderdi bakarreko gutxiengo gobernu bat baino (% 32), koalizioa geometria aldarreko uanean uneko akordioen bidez (% 23) nahiz legealdiko itunen bidez (% 9) osatuta. Soilik PNVren hautesleria ageri da zatituta kolore bakarreko gobernuaren (% 46) eta koalizioaren (% 45) artean, edozein koalizio formula lehenesten duten gainerako hauteslerien aurrean (ikus 26. grafikoa).


Bestalde, galdetu diegu ere haien ustez zein izan daitekeen hurrengo gobernua eratzeko lehendakaririk onena, eta I. Urkullu (% 47) nabarmendu da gainerakoen guztien artean: A. Otegi (% 9), P. Zabala (% 4), etab. Urkulluren nagusitasuna agerikoa da, batez ere, Bizkaian (% 53), abertzaleen artean (% 53) eta PNVren (% 84) eta PPren (% 87) boto emaileen artean, eta gehiengoaren aukera ere bada abstentzionisten artean (% 35) edo sozialisten boto emaileen artean (% 47); horren aurrean, Otegiren aukeraren egin dute EBHren boto emaileek (% 50), eta P. Zabalarenaren alde (% 24), Elkarrekin Podemosekoek.

PNVren eta PSE-EEren arteko akordioa da emaitza gertagarriena gehiengoarentzat, eta, maila apalagoan, euskal gizarteak aukera hori lehenesten du, nabarmen zatituta egon arren

Lehen, gobernua osatzeko lehenetsitako aukerei buruz galdetu badiegu ere, oraingoan gehiengo gobernu berria osatzeko lehenetsitako aukera bereberei buruz galdetu diegu, eta aukeren pluraltasuna eman da berrirori; horien artean, PNVren eta PSE-EEren arteko akordioa (% 28) lehenesten da; gero, PNVren eta EHBren abertzaleen arteko akordioa (% 19), edo PNVren eta Elkarrekin Podemosen artekoa (% 14); ostera, bigarren mailan geratzen dira EHBren eta Elkarrekin Podemosen arteko gobernu alternatiboa (% 9) edo PNVren eta PPren arteko zentro-eskuineko gobernua (% 3). PNV/PSE-EE gobernua hautesleria sozialistaren gogokoena da (% 83), eta PNVren boto emaileek lehenetsitakoa (% 36), haien arteko zatiketa askoz handiagoa izan arren. PNVren eta Elkarrekin Podemosen arteko akordioa azkenekoen artean nabarmentzen da (% 44), baina ez lehenengoan artean (% 14). EHB/Elkarrekin Podemos gobernu alternatiboak ez ditu konbentzitzen ez lehenengoak (% 26), ez bigarrenekoak (% 22). Amaitzeko, PNV/PP akordioa soilik azkenekoen dute gustuko (% 93) --- ikus 27. Grafikoa ---.

Haatik, gehiengoak (% 56) ados dago PNVren eta PSE-EEren arteko akordio batean oinarritutako formula gertagarriena dela adieraztean; gainerako aukerak urrun geratzen dira: PNV/EHB (% 11), PNV/Elkarrekin Podemos (% 5), PNV/PP (% 4) edo EHB/Elkarrekin Podemos (% 2). Kasu horretan, lehenetsitako aukera berdina da hautesleria guztietan.

17. Grafikoa: HAUTESKUNDEEN EMAITZEKIKO GOGOBETETASUNA ETA BALIZKO ERABAKIA EMAITZAK JAKIN BALIRA



PNV= %87 (-10)
 EHB=%52 (-35)
 Podemos= %28

Abe.= %62 (-25)
 Ez abe.= %37 (+6)

PSE-EE= %76 (-4)
 PP= %73 (-8)
 EHB=%47 (+35)

Abe.= %37 (+25)
 Ez abe.= %57 (-1)

18. Grafikoa: HAUTESKUNDEEN ERAGINA EUSKADI ETA ESPAINIARRAKO

ESPAINIA


Abe. = %40
Ez abe. = %34

PNV = %60
PP = %53

Podemos = %35
EHB = %31 (+27)


Abe. = %19 (+12)
Ez abe. = %25 (-11)

EUSKADI



PSE-EE = %50
EHB = %45
Podemos = %42


Abe. = %31
Ez abe. = %34




PNV = %94 (-2)
EHB = %60 (-32)
PP = %53 (+25)
Podemos = %47
PSE-EE = %45 (+14)

Abe. = %74 (-15)
Ez abe. = %53 (+12)


19. Grafikoa: BOTOA ERABAKITZEKO UNEA ETA BOZKATZEKO MOTIBAZIOA



20. Grafikoa: NOIZ ERABAKITZEN DEN ABSTENTIZIOA ETA ABSTENITZEKO ARRAZOTIAK




21. Grafikoa: OHIKO BOTOA ALA EZ ETA BOZKATZERAKOAN ESPAINIAKO EGOERA KONTUTAN IZATEA




22. Grafikoa: 2016KO HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETAN BOZKATZEKO ARRAZOIAK


PNV




PP




Podemos





PSE-EE




EHBildu






25. Grafikoa: BOTO TRANSFERENTZIAK 2012-2016


2012KO BOZKA-EMAILEAK NORA JOAN DIREN



2016KO HAUTESLERIA NONDIK DATORREN




28. Grafikoa: GOBERNU EGONKOR BAT OSATZEKO LEHENTASUNAK ETA BALIZKO LEHENDAKARI ONENA




27. Grafikoa: GOBERNU FORMULA LEHENETSIA ETA AUKERA GERTAGARRIENA

AUKERA GERTAGARRIENA



AUKERA LEHENETSIA





V. Atala

Euskal gizarteak abertzale eta ez-abertzaleen artean zatituta jarraitzen du, baina azken horiek dira nagusi.

Espainiar eta euskal identitate bikoitza berresten dute euskal herritarrek, euskalduntasuna argi nabarmenduz.

Estatu konposatuaren definizio konstituzionala eta herritartasun sentimendua nagusi da euskal gizartean, azken hamarkadako testuinguru identitario plural eta egonkor batean.

Gutxituz doan gehiengo batek ongi ikusten du Euskadi nazio gisa onartzea, baina gutxiengo batek soilik jartzen du espainiar nazioaren aurka.

Autogobernuaren lehentasunek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean.

Gehiengo handi batek gustura jarraitzen du Estatutuarekin.

Gernikako Estatutuak gehiengoaren babes esplizitua berreskuratzen jarraitzen du.

Independentzia nahiak gutxiengo dira oraindik, ziurgabetasun etorkizun batean.

Euskal gizartea independentziari buruzko erreferendum baten deialdiaren alde dago.

Balizko erreferendum horretan EZEZKOA BAIEZKOARI gailenduko litzaioke, eta ezezkoa gehiago indartuko litzateke EBtik aterata eta Espainiako merkatua galduta.

EZ-ABERTZALEEK NAGUSITASUNARI EUSTEN DIOTE EUSKAL GIZARTEAN, ZATIKETA KRONIKO BATEN ERDIAN

Abertzaleen (% 46) eta ez-abertzaleen (% 50) arteko zatiketa kroniko baten erdian, bi taldeen arteko aldeak gerturatu egin dira berriro azken urtean; hala, lehenengoak +7 puntu aurreratu dira, eta bigarrengoek -4 puntuko atzerapen korrelatiboa izan dute. Hautesleriaren arabera, ez-abertzaleek Elkarrekin Podemosen boto emaleen % 72ko gutxienekoaren eta popularren % 100eko gehienekoaren artean kokatzen dira, tartean egonda abstentzionisten % 65, C´sen % 83 eta PSE-EEren % 95. Aitzitik, sentimendu abertzalea PNVren % 74ko gutxienekoaren eta EHBren % 88ko gehienekoaren artean dabil (ikus 28. grafikoa).

EUSKAL ETA ESPAINIAR IDENTITATEEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA NAGUSI DA ORAINDIK, EUSKALDUNTASUNA ARGI NABARMENDUZ

Seihilekoan egonkortasun handia erakutsita, gehiengoak, bost euskaldunetarik hiruk (% 60), euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunari eusten diote. Horren barruan, euskaldun-espainiar orekatua da nagusi (% 36), eta horri dagoeneko ezaguna den euskalduntasun sentimendua gehitzen zaio (% 22), zeina, edonola ere, espainolismoaren (% 2) oso gaitetik dagoen. Bestalde, muturreko espainolismoa soilik % 5era iristen da; haatik, euskaldunen herenek baino apur bat gutxiagok (% 32) soilik euskaldun identitatea dutela adierazi dute (ikus 29. grafikoa).

Euskaldun eta espainiar sentitzen direnen identitateen bateragarritasunari dagokionez, gutxienekoa EHBren boto emaleen % 12 da, eta gehienekoa PSE-EEren boto emaleen % 100 (tartean dira PNVren % 62, PPren eta C´sen % 67, abstentzionisten % 70 eta Elkarrekin Podemosen % 72); nolahi ere, euskalduntasuna argi nabarmentzen da abertzaleen eta Elkarrekin Podemosen artean, eta orekatuagoa da, berriz, autonomisten artean. Soilik euskaldun sentitzen direnen eskusibotasuna EHBren hauteslerian (% 85) biltzen da, eta esanguratsua da PNVren boto emaleen artean (% 36), haien arteko zatiketa handiagoa den arren. Bestalde, espainiar sentimendua sozialisten, C´sen eta, batez ere, popularren artean nabarmentzen da.

ESTATU KONPOSATUAREN DEFINIZIO KONSTITUZIONALA ETA HERRITARTASUN SENTIMENDUA NAGUSI DA EUSKAL GIZARTEAN, AZKEN HAMARKADAKO TESTUINGURU IDENTITARIO PLURAL ETA EGONKOR BATEAN

Euskal herritarrei Espainiaren esanahiari buruz galdetuta, lau urteren ondoren, gehiengo estu (% 40) eta egonkor batek konstituzioaren definizioaren alde egiten du,

hau da: "hainbat nazionalitatek eta erregiok osatutako estatu bat da"; gero, "herri-tartasunaren" ideia agertzen da (% 27), azken urteotan gehien aurreratu dena (+5 puntu), eta ondoren nazio identitateko definizioak (% 22), hala nola "nire herrialdea" edo "kide naizen nazioa". Amaitzeko, beste estatu baten abertzaletasunaren ideia (% 11) egonkor mantentzen da (ikus 30. grafikoa).

Abertzaleentzat ideia hauek dira nagusi: estatu konposatua (% 47), herritartasuna (% 22) eta beste estatu bat (% 22); ostera, ez-abertzaleen artean zatiketa handiagoa da: definizio identitarioak (% 34), estatu konposatua (% 34) eta herritartasuna (% 31). Hauteslerien arabera, PPren boto emaileek (% 100) eta, neurri apalagoan, C's alderdikoek (% 83) definizio identitarioen alde egiten dute; haatik, Elkarrekin Podemosen (% 52) eta PNVren (% 45) boto emaileek estatu konposatuaren alde egiten dute, herritartasunaren ideiarekin uztartuta (% 27 eta % 33, hurrenez hurren); EHBren boto emaileek, berriz, beste estatu bat lehenesten dute (% 46), estatu konposatuarekin osatuta (% 38). Amaitzeko, puntu honetan sozialisten hautesleria lerratzen da gutxien, eta zatituta ageri da hiru definizio hauen artean: estatu konposatua (% 33), herritartasunaren ideia (% 31) eta sentimendu identitarioa (% 36).

GUTXITUZ DOAN GEHIENGO BATEK ONGI IKUSTEN DU EUSKADI NAZIO GISA ONARTZEA, BAINA GUTXIENGO BATEK SOILIK JARTZEN DU ESPAINIAR NAZIOAREN AURKA

Orain dela hamaika urte, euskaldunen gehiengo batek (% 55) ongi ikusten zuen Euskadi nazio gisa definitzea, autogobernuaren erreforma egingo balitz; gaur egun, izaera nazionalaren aitortza hori emateko adostasuna % 47ra jaitzi da (-8 puntu). Ideia hori ia abertzale guztiek babesten dute (% 76), bai eta ez-abertzaleen ia laurdenek ere (% 22). Horrez gain, horren alde daude EHBren boto emaileak (% 90), PNVrenak (% 53) eta, neurri apalagoan, Elkarrekin Podemosenak (% 42) eta abstentzionistak (% 37). Horien aurrean, herenek baino gehiagok (% 35) aukera hori baztertzen dute, hamarkada luze honetan gora egin ondoren (+13 puntu), eta joera hori nagusi da ez-abertzaleen artean (% 57), eta C'sen (% 100), PPren (% 93) eta PSE-EEren (% 78) boto emaileen artean, eta, neurri apalagoan, abstentzionisten (% 40) eta Elkarrekin Podemosen (% 31) boto emaileen artean. Bi talde horien artean, hamarretik batek (% 11) ez du lehenesten ez aukera bat, ez bestea, eta % 7k ez du iritzirik eman gai horri buruz (ikus 31. grafikoa).

Euskadi nazio gisa aitortzearen alde agertu den ia erdi (% 47) horri galdetu diogu ea onartuko lukeen euskal nazioaren aitortza nazioen nazio gisa ulertutako espainiar nazio baten barruan edo, aitzitik, argi bereizita dauden bi errealitate nazional gisa. Bigarren aukera horren alde egin du euskal gizartearen laurdenak (% 25), eta zazpitik batek aitortza hori espainiar nazio baten barruan ematea aukeratu du (% 14);

zentzu horretan argi bereizten dira, alde batetik, EHBren jarrera, eta, bestetik, askoz zatituago ageri diren PNVrena eta Elarrekin Podemosena.

EUSKAL GIZARTEAK ZATITURIK JARRAITZEN DU AUTONOMISMOAREN, FEDERALISMOAREN ETA INDEPENDENTISMOAREN ARTEAN

Estatuaren lurraldea antolatzeko formari dagokionez urte arteko egonkortasun handiko testuinguru batean, euskal herritarrek zatiturik daude oraindik autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean. Euskal herritar gehienak oraingo formula autonomikoaren (% 33) eta balizko federalismo baten artean (% 34) kokatzen dira. Gaur egungo eredu autonomikoa aukera nagusia da oraindik popularraren (% 87) eta sozialisten (% 55) hauteslerietan; maila apalagoan ageri da abstentzionisten (% 39) eta C´sen (% 3) barruan; eta, nabarmena da PNVren (% 33) eta Elarrekin Podemosen (% 32) boto emaileen artean eta, oro har, ez-abertzaleen artean (% 45). Autogobernua formula federal batez garatzeko aukera nagusitzen da PNVren (% 46) eta Elarrekin Podemosen (% 44) boto emaileen artean, eta maila apalagoan ageri da C´sen (% 33) boto emaileen artean; dena den, babes nabarmena dauka sozialisten (% 33) eta abstentzionisten (% 33) artean. Aukera horrek antzeko babesa du abertzaleen eta ez-abertzaleen artean (heren bat inguru). Nolanahi ere, bi formula integrazionista horiek gehiengo nagusia osatzen dute oraindik (% 67), hiru euskaldunetatik bi horren alde baitaude (ikus 32. grafikoa).

Formula deszentralizatzaile eta integrazionista horien aurrean, autodeterminazio eta konfederazio formulen independentismoa euskaldunen laurdenek inguru (% 25) babesten dute, Gipuzkoan (% 30) batez ere. Aukera horrek babes handia dauka EHBren (% 88) boto emaileen artean, eta babes nabarmena, oro har, abertzaleen artean (% 45), gutxiengoan izan arren PNVren (% 17) eta Elarrekin Podemosen (% 16) boto emaileen artean. Beste muturrean, euskaldunen % 4 zentralismoaren aldekoak dira, arbuiatze edo lekukotasun adierazpen gisa, eta horren barruan, batez ere, boto emaile popularraren eta sozialisten gutxiengo bat biltzen da.

GEHIENGO HANDI BAT NAHIKO GUSTURA DAGO ORAINDIK ESTATUTUAREKIN, AREAGOTU DAITEKEEN AUTOGOBERNU BATEN ALDEKO NAHIAK ASETZEN JARRAITZEN BAITU

Euskal herritarren hiru laurdenen gehiengo kualifikatu bat (% 74) nahiko gustura dago oraindik estatutuarekin; ostera, gustura ez daudenak ez dira iristen bostetik bat izatera (% 19), azken hilabeteotan nolabaiteko egonkortasuna mantenduta. Hala eta guztiz ere, gogobeteta daudenak jarrera kritikoa (% 39) eta baikorraren artean (% 35) dabilta, seihilekoan bigarrenengoek aurrera egin badute ere lehenengoan kalterako. Abertzaleek jarrera kritikoa (% 45) dute nagusiki, eta ez-abertzaleak, berriz,

erabat gustura (% 48) ageri dira. Hautesleriari erreparatuta, jarrera kritikoa nagusi da PNVren (% 49) boto emaileen artean, eta, neurri apalago batean, Elkarrekin Podemosekoen (% 41) artean; bestalde, EHBren (% 58) boto emaileak dira kontentagaitzenak, eta guztiz gustura daudenak, berriz, sozialistak (% 52), popularrak (% 73) eta C´sekoak (% 67); nolahi ere, nahiko zatituak ageri dira guztiak dauden aukeren aurrean (ikus 33. grafikoa).

Asegabetasun erlatiboa eta gaitzespena oso zehaztuta geratzen dira berriro, euskal herritarrei oraingo autogobernuaren estatusaren alternatibei buruz galdetzen zaizenean; izan ere, lautik ia batek ez du nahi aldaketarik (% 24), proportzio berak transferentziak osatzea nahi du (% 24), eta zertxobait handiagoa den multzo bat autogobernua aldatzearen eta zabaltzearen alde ageri da (% 29); haatik, gutxiengo oso txiki batek (% 14) haustura subiranista baten alde egiten du, argi eta garbi; sei hilekoan izandako aldaketak, oro har, ez dira esanguratsuak izan. Lehenengo bi aukeretan popularraren eta sozialisten lehentasunak biltzen diren bitartean, PNVren eta Elkarrekin Podemosen boto emaileen arteko zatiketa handiagoa da, baina autogobernua indartzearen aldekoak dira nagusi; bestalde, EHBren barruan subiranotasunaren aukera lehenesten da (% 60).

GERNIKAKO ESTATUTUAK EUSKAL HERRITAR GEHIENGOEN BABES ESPLIZITUA BERRESKURATZEN JARRAITZEN DU

Gernikako Estatutuaren onarpena berretsi zuen erreferenduma egin zenetik 37 urte igaro direnean gaur erreferendum hori berriro egingo balitz, Baiezko botoa (% 47) berriro gerturatuko litzake 1979an erroldaren gehiengoak (% 53) emandako baiezko botoari, urte artekoan +17 puntu berreskuratu ondoren. Aldeko iritzi hori ia berdin mantentzen dute abertzaleek (% 51) eta ez-abertzaleek (% 45). Aldiz, orain dela 30 urteko ezezko botoa (% 3) gainditu egingo litzateke (% 13 eta -7 puntuko urte arteko atzerapena) garai hartan izandako abstentzioaren kargura (1979an abstentzioa % 41 izan zen). Zatiketa hautesleria guztien ezaugarria da, baina baiezkoa nagusi da denetan, EHBn izan ezik, zeina zatituago ageri den arren, gero eta gutxiago egiten du ezezkoaren alde (% 38) (ikus 34. grafikoa).

INDEPENDENTZIA NAHIAK GUTXIENGO DIRA ORAINDIK, ZIURGABETASUN ETORKIZUN BATEAN

Euskal autogobernuaren formula politikoa zein den alde batera utzita, euskal herritarren laudenek gutxi gorabehera (% 29) independentzia nahi dutela adierazten dute, urte arteko egonkortasun handiarekin. Hori adierazi dute EHBren boto emaile gehienek (% 83) eta abertzale gehienek (% 51), oro har, eta, maila apalagoan, PNVren boto emaileek (% 27). Horien aurrean, euskal gizartearen gehiengoak (% 59) adiera-

zi du independentzia nahia txikia duela (% 22) edo ez duela independentziarik nahi (% 37); iritzi hori ematen da, batez ere, ez-abertzaleen artean (% 79) eta alderdi autonomisten boto emaileen artean (hamarretik bederatzik baino gehiagok); dena den, multzo horren barruan daude ere PNVren (% 63) eta Elkarrekin Podemosen (% 63) boto emaile gehienak eta abstentzionista (% 65) gehienak --- ikus 35. grafikoa ---.

Euskadi independente baten hipotesiaren aurrean, bizi baldintzen bilakaerari buruzko euskal gizartearen itxaropenak oso zatituta ageri dira: alde batean, hobe biziko ginatekeela uste dutenak daude (% 27), eta, bestean, kontrakoa pentsatzen dutenak eta okerrago egongo ginatekeela uste dutenak (% 35); seihilekoan lehenengoek +5 puntu egin dute aurrera. Ia beste hainbestek uste dute gauzak ez liratekeela aldatuko (% 15) edo ez dakite zehazki zeren alde egin (% 23). Baikorrenak EHBren (% 75) boto emaileak dira berriro, eta, oro har, abertzaleak (% 49). Bestalde, ezkorrenak popularrak (% 100), sozialistak (% 83) eta C ´skoak (% 67) dira, eta, oro har, ez-abertzaleak (% 51). Amaitzeko, baikorren eta ezkorren arteko zatiketa askoz ere nabariagoa da PNVren eta Elkarrekin Podemosen boto emaileen artean.

EUSKAL GIZARTEA EUSKADIKO INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BATEN DEIALDIAREN ALDE DAGO

Azken urteotan, sektore abertzaleek eta ezkerreko alderdi politiko berriek "erabakitzeko eskubidea" deritzon gaia planteatu dute, eta eskubide hori lurralde jakin baten balizko independentziari buruzko erreferendum baten bidez gauzatuko litzateke; zehazki, Katalunian bezala. Horren harira eta bi urte igaro ondoren, berriro galdetu diegu gure elkarrizketatuei ea Euskadin Espainiatik independizatzeko aukerari buruzko erreferendum bat planteatzearen alde dauden ala ez. 2014. urtean jasotako antzeko erantzuna jaso dugu; hala, gehiago dira alde daudenak (% 59) kontra daudenak (% 30) baino, % 11k horri buruzko iritzia eman ez badu ere. Lehenengoak abertzaleen (% 81) eta haien boto emaileen artean nabarmentzen dira (abstentzionisten % 52tik EHBren % 96ra, eta horiekin batera Elkarrekin Podemosen eta PNVren bi heren inguru); ostera, bigarren multzoan, hautesleria autonomista dago (sozialisten % 66 eta popularren % 93ren artean), eta ez-abertzaleen iritzia, oro har, oso zatituta ageri da: aldekoak (% 41) eta kontrakoak (% 47) --- ikus 36. grafikoa---.


BALIZKO ERREFERENDUM HORRETAN EZEZKOA BAIEZKOARI GAILENDUKO LITZAIROKE, ETA EZEZKOA INDARTUKO LITZATEKE EBtik ATERATA ETA ESPAINIAKO MERKATUA GALDUTA.

Era berean, bi urte geroago, elkarrizketatuei galdetu diegu berriro ea zer egingo luketen bihar bertan Euskadin independentziari buruzko erreferendum bat egingo balitz. Iritzi oso desberdinak ageri dira, eta, aldi berean, bilakaera nabarmena haute-


maten da haietan. Nolanahi ere, BAIEZKOAK, hasieran jarrera askoz ere aldekoagoa izanda, atzera egin du (-4 puntu) eta apur bat atzean geratu da (% 31) --- batik bat, Gipuzkoan (% 34)---, EZEZKOAREKIN alderatuta (% 39), zeina seguru asko gutxiago mobilizatzen den --- batik bat, Bizkaian (% 40)---. Ezezkoak +5 puntu egin du aurrera; hortaz, orain dela bi urteko berdinketa teknikoa hautsi, eta ezezkoa zortzi puntu aurreratu da. Horrez gainera, % 12 abstenitu egingo litzateke, eta % 18ak ez du une honetan inolako lehentasunik. Abertzaleek eta ez-abertzaleek aldeko (% 53) eta kontrako (% 57) jarrera argiak dituzte, hurrenez hurren; eta, haien hautesleriek ere gauza bera adierazi dute (EHBko boto emaileen % 86 eta, neurri apalagoan, PNVkoen % 32 baizkoaren alde daude, eta PPren eta C 'sen % 100 eta PNVren % 40 ezezkoaren alde, tartean egonda Elkarrekin Podemosen % 45, PSE-EEren % 79 eta abstentzionisten % 35) --- ikus 37. Grafikoa---

Baizkoa bozkatuko zutela erantzun dutenei galdetu diegu ea zenbateraino mantenduko luketen aldeko jarrera hori, baldin eta horrek EBtik ateratzea eta,aldi berean, Espainiako merkatuan lekua galtzea ekarriko balu. Bi kasuetan, baiezkoa % 25era eta % 23ra murriztuko litzateke, hurrenez hurren. Bestalde, % 2 edo % 4 ezetz bozkatzera aldatuko litzateke, eta % 4k zalantza egingo luke bi kasuetan. Egoera horrek antzeko eragina izango luke EHBren eta PNVren hauteslerietan, baina azkenekoan apur bat gehiago.


28. Grafikoa: EUSKALDUEN SENTIMENDU ABERTZALEA




29. Grafikoa: EUSKALDUNEN IDENTITATE NAZIONAL SUBJEKTIBOA




30. Grafikoa: ESPAINIAREN ESANGURA EUSKADIN




31. Grafikoa: EUSKADI NAZIO GISA AITORTZEARENKIKO ETA AITORTZA MOTAREKIKO ADOSTASUN MAILA




32. Grafikoa: ESTATU EREDUARI BURUZKO ALTERNATIBAK



33. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUAREKIKO GOGOBETASUNA ETA EGUNGO EGOERA KONPONTZEKO ALTERNATIBAK




34. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1979 ETA 2016 ARTEAN*



*Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2016ko urtarria)

35. Grafikoa: EUSKALDUNEN INDEPENDENTZIA NAHIAK ETA BIZI ITXAROPENAK INDEPENDENTZIAREN ONDOREN

INDEPENDENTZIA NAHIAK



EHB= %83 (+4)
PNV= %27 (=)
Abe.= %51 (+1)


PNV= %33 (=)
Podemos=%29 (+7)
Abst.= %24 (+3)

Abe.= %26 (+3)
Ez abe.= %18 (-3)

Abe.= %12 (-5)
Ez abe.= %61 (+2)

PP= %100 (+6)
PSE-EE= %74 (-8)
Abst.= %44 (=)
Podemos=%34 (-11)
PNV= %30 (+2)

BIZI ITXAROPENAK




Abe.= %50 (+5)
Ez abe.= %8 (+1)

EHB= %75 (+6)
PNV= %29 (+10)

Abe.= %19 (+5)
Ez abe.= %51 (-2)

PP= %100 (+25)
PSE-EE=%83 (+9)
Podemos=%28 (-12)



36. Grafikoa: EUSKADIN INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGITEAREKIKO ADOSTASUN MAILA




37. Grafikoa: BOTOA, INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINCO BALITZ, ETA BAIEZKO BOTOARI EUSTEKO BALDINTZAK

BOTOA, INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINCO BALITZ

BALDINTZAK



EUSKADIK POSIZIOAK GALTZEN DITU ESPANIAKO EKONOMIAREKIKO (%31)



PP=%100 (+30)
PSE-EE=%79 (-6)
Podemos=%45 (+9)
PNV=%40 (+16)
Abst.=%35 (+1)

EHB=86% (+1)
PNV=32% (-13)
Podemos=22% (-6)
Abst.=21% (+3)

Abe.=%21 (+9)
Ez abe.=%57 (+7)

Abe.=%53% (-12)
Ez abe.=%11% (-1)



VI. Atala

ETAren aurkako gehiengoaren erabateko gaitzespena errekor historikoan dago, abertzaleen barruko eraldaketa gertatzen ari den honetan.

Euskal gizarteak ETA Euskadirako negatiboa izan dela berretsi du.

Indarkeriarekin amaitzeko ETAren borondatearen eta arau demokratikoak onartzeko ezker abertzalearen borondatearen aurrean euskal gizarteak erakutsitako konfiantzak gora egiten jarraitzen du.

Euskal gizarteak bere jarrera gogortu du, terrorismoko delituak dituzten presoak barkatzeari eta gizarteratzeari dagokienez.

Gehiengo estu bat A. Otegiren inhabilitazioaren aurka dago, polarizazio politiko handiko testuinguru batean.

EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOAK ETAREN AURKA ERAKUTSITAKO ERABATEKO GAITZESPENA ERREKOR HISTORIKOAN DAGO, ABERTZALEEN BARRUKO ERALDAKETA GERTATZEN ARI DEN HONETAN

Euskal gizartearen gehiengoak ETA gaitzesten du erabat (% 63), errekor historikoaren ingurura iritsita. Jarrera hori nagusi da probintzia guztietan (Gipuzkoako % 60ren eta Arabako % 65en artean), abertzaleen artean (% 49) eta, batez ere, ez-abertzaleen artean (% 75); jarrera nagusia da, halaber, hautesleria ia guztietan, Elkarrekin Podemosen % 65eko gutxienezkotik PPren % 93ko gehienekora, eta salbuespen bakarria EHB izanik (ikus 38. grafikoa).

Nolabait babesten dutenen iritziak, dela ETAREN indarkeria lehen justifikatuta ze-goela eta orain ez uste dutenenak (% 7) dela helburuak bai baina indarkeria metodoak partekatzen ez dituztenenak (% 12), egonkortu dira ere. Iritzi hori nabarmena da abertzale sentitzen direnen artean (% 29) eta haien hauteslerien artean (PNVren % 17ko gutxienezkotik EHBren % 47ko gehienekora, tartean Elkarrekin Podemosen % 23 egonda).

Halere, estatistikoki garrantzi gutxiago izan arren, deigarria da ia erabat desagertu dela erabateko babes esplizitua eta osoa (% 1), baita EHBren boto emaileen artean ere (% 3), eta 3 puntura murriztu dela haren akatsak onartuta ETAREN justifikazio kritikoa egiten dutenen multzoa, soilik EHBren boto emaileen % 16k mantentzen baitute. Gaur egun, ematen du EHBn biltzen den Ezker Abertzalearen gehiengoak kokatzen dela helburuak partekatzen baina indarkeria metodoak gaitzesten dituztenen (% 38) edo nolabait babesten dutenen (% 9) artean, eta horiei batu behar zaie, berriro ere, erabateko gaitzespena adierazi dutenak (% 21), zeinak, gainerakoan, aldeari eusten baitote erabateko babesaren adierazten dutenekiko, hautesleria horrek azken urteotan izandako pixkanakako moderazioaren ondoren eta azken hauteskunde autonomikoe-tan boto emaileen bosten bat galdu osteko barne oreka berrezarri ondoren. Horrek guztiak argi berresten ditu indarkeria behin betiko utzi aurreko urteetan ETAK eta Ezker Abertzaleak izandako babesaren galera eta horren arrazoiak, bai eta 2011n hasitako ziklo berrian babes hori berreskuratu izana edo orain dela gutxi galdu izana.

EUSKAL GIZARTEAK ETA EUSKADIRAKO NEGATIBOA IZAN DELA BERRETSI DU

Bi urteren ondoren, euskal gizarteak ia jarrera bateratua erakutsi du berriro (% 82) ETA Euskadirentzat oso negatiboa edo nahiko negatiboa izan dela baloratzeko unean, bi urtean apur bat atzera egin ondoren (-3 puntu). Oro har, iritzi hori partekatzen da, eta berdin ageri da probintzia guztietan, abertzale (% 79) eta ez-abertzale artean (% 91), eta hautesleria guztietan (EHBren % 44tik PPren % 100era) (ikus 39. grafikoa).

INDARKERIAREKIN AMAITZEKO ETAREN BORONDATEAREN ETA ARAU DEMOKRATIKOAK ONARTZEKO EZKER ABERTZALEAREN BORONDATEAREN AURREAN EUSKAL GIZARTEAK ERAKUTSITAKO KONFIANTZAK GORA EGITEN JARRAITZEN DU

Azken urtean, ETak eta haren gizarte inguruak indarkeriarekin amaitzeko erakutsitako jarrera zintzo izatearen konfiantzak (% 56) aurrera egiten jarraitu du (+12 puntu). Konfiantza gehien abertzaleek (% 73) erakutsi dute, eta EHBren (% 89), Elkarrekin Podemosen (% 62) eta PNVren (% 55) boto emaileek. Gainerako guztiak, ordea, mesfidati ageri dira (sozialisten % 52ko gutxienez PPren % 80ko gehienekora); azken jarrera horrek euskal gizartearen laurden bati baino apur bat gehiagori (% 27) eragiten dio, urte artekoan -12 puntu atzera egin ondoren (ikus 40. grafikoa).

Modu berean eta joan den urteko bilakaera negatiboa aldatuta, azken urte honetan, arau demokratikoak onartzeko Ezker Abertzalearen borondatearekiko gehiengoaren (% 51) konfiantza berreskuratu da berriro (+ 9 puntu), eta mesfidantza % 30era gutxitu da. Konfiantzaren batez besteko % 51 horren barruan, Gipuzkoa (% 55) eta abertzaleak (% 68) nabarmentzen dira, baita EHBren (% 91), Elkarrekin Podemosen (% 61) eta PNVren (% 49) hautesleriak ere. Mesfidantza, ordea, ez-abertzaleen (% 39) artean nabarmentzen da, oso zatituta ageri diren arren, eta gainerako hauteslerien artean (PSE-EEren % 45etik PPren % 73ra).

EUSKAL GIZARTEAK BERE JARRERA GOGORTU DU, TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOK BARKATZEARI ETA GIZARTERATZEARI DAGOKIENEZ

Azken bederatzi hilabeteetan joera nabarmen aldatuta eta presoen gaiarekin nola-baiteko nekea adierazita, euskal gizartearen gutxituz doan (-10 puntu azken urtean) gutxiengo bat (% 40) terrorista guztiak gizarteratze neurrien onurak jasotzearen alde dago, baldin eta damutzen badira eta armak uzteko erabakia adierazten badute. Horien aurrean, lautik batek (% 25), urtean +4 puntuko aurrerapena izanda, uste du neurri horiek soilik aplikatu dakizkiekeela hilketa deliturik ez dituztenei; bestalde, hamarretik ia hiru (% 29) eta azken bederatzi hilabeteetan + 10 puntu aurreratuta ez daude barkatzeko prest, eta uste dute batzuek nahiz besteek zigor osoak bete behar dituztela (ikus 41. grafikoa).


Baldintzarik gabe barkatzearen alde dauden abertzale gehienak hoztu badira ere (-13 puntu azken bederatzi hilabeteetan), ez-abertzaleak zatiturik daude gai horren inguruan, baina orain zigorrik osorik betetzearen aldeko jarrera nagusitzen da (% 42). Soilik EHBren boto emaileak (% 67) daude argi eta garbi baldintzarik gabeko barkamenaren alde, eta, neurri askoz ere apalagoan eta zatiketa handiko testuinguruan, horren alde daude ere PNVren (% 39) eta Elkarrekin Podemosen (% 37) boto emaileak. PPren hautesleriaren gehiengoak (% 73) zigorrik osorik betetzearen alde

dago, C´sen hautesleria bezala (% 50); zatiketa askoz handiagoa da, ordea, sozialisten boto emaileen artean, nahiz eta nagusiki zigorrak osorik betetzearen aldekoak diren (% 38).


GEHIENGO ESTU BAT A. OTEGIREN INHABILITAZIOAREN AURKA DAGO, POLARIZAZIO POLITIKO HANDIKO TESTUINGURU BATEAN

Aurreko hauteskunde autonomikoetan A. Otegiren inhabilitazioak kalean eta iritzi publikoan izandako oihartzuna ikusita eta horri buruzko kontrako eta aldeko iritzia ikusita, gure elkarrizketatuei galdetu diegu ea Otegi lehendakariaga izatea eragotzi dion ebazpen judizialaren alde edo kontra dauden. Gehiengo estu bat (% 48) aipatutako ebazpenaren aurka agertu da, testuinguru batean non iritzien arteko nolabaiteko zatiketa dagoen ebazpen horren alde daudenen (% 32) eta iritzia eman ez dutenen (% 20) artean. Lehenengoen artean, EHBren (% 92) Elkarrekin Podemosen (% 54) eta PNVren (% 52) boto emaileak dira nagusi eta, oro har, abertzaleak (% 71); ostera, inhabilitazioaren aldeko jarrera nagusi da PPre (% 100), C´sen (% 83) eta PSE-EEren (% 66) boto emaileen artean, eta, oro har, ez-abertzaleen (% 64) artean, agerian utzita polarizazio politiko handia dagoela eztabaida horren inguruan (ikus 42. grafikoa).

38. Grafikoa: EUSKALDUNEN JARRERA ETAREKIKO



39. Grafikoa: ETAREN AZKEN 40 URTEKO IBILBIDEAREN GAINEKO BALORAZIOA




INDARKERIA EKINTZEN AMAIERA

BORONDATE HANDIA EDO NAHIKO HANDIA
56% (+7)

EHB= %89 (+2)
Podemos=%62 (+3)
PNV= %55 (=)

Abe.=%73 (+8)
Ez abe.=%40 (+3)



Abe.=%16 (=)
Ez abe.=%38 (-3)


PP= %80 (-8)
PSE-EE= %52 (+13)
PNV=%29 (+11)

SISTEMAN INTEGRATZEA

BORONDATE HANDIA EDO NAHIKO HANDIA
51% (+9)

EHB= %91 (-1)
Podemos=%61(+12)
PNV= %49 (+2)


Abe.=%68 (+7)
Ez abe.=%37 (+11)




Abe.=%20 (+1)
Ez abe.=%39 (-13)

PP= %73 (-15)
PSE-EE= %45 (+2)
PNV= %36 (+8)
Podemos=%24 (-13)

41. Grafikoa: TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOEN GIZARTERATZEARI BURUZKO IRITZIA





A series of horizontal dashed lines for writing, consisting of 20 lines spaced evenly down the page.